
Bechstein saguzarrak *Myotis bechsteinii* (Kuhl, 1817) (Mammalia, Chiroptera) Euskal Herrian duen banaketari buruzko datu berriak.

New data on the distribution of the
Bechstein's bat *Myotis bechsteinii* (Kuhl, 1817)
(Mammalia, Chiroptera) in the Basque Country.

JOSERRA AIHARTZA* & INAZIO GARIN*



Bechstein saguzarra *Myotis bechsteinii* (Kuhl, 1817) Europan oso barreiatuta dago, Iberiar Penintsulatik hasita iparralderantz Suediako hegoalderaino, eta ekialderantz Kaukaso eta Iran iparralderaino (LANZA & FINOTELLO, 1985; CORBET & HARRIS, 1991; SCHLAPP, 1999). Eremu osoan espezie arraro eta lokala dela dirudi, hostogalkorren baso epel zabalak dituzten eskualdetan soilik agertzen delarik eskuharki (SCHLAPP, 1999), batikbat baso mixtoetan eta arbola zaharrak arruntak direnetan (CERVENY & BÜRGER, 1989; GREENAWAY & HUTSON, 1990).

Euskal Herrian Leitzako Tolarea mehazuloetan (Nafarroa, WN87) aipatu zen lehen aldiz *M. bechsteinii* (GALÁN, 1970), hain zuzen *Rhinolophus ferrumequinum* batera (Schreber, 1774) eratutako kumatze-kolonia batetan, eta bertatik edoskian zegoen eme bat eta kume bat harrapatu ziren bildumarako. 1977an eginiko bigarren bisitaldi batetan GALÁNEK (1997) "antzeko egoeran" topatu zuen kolonia eta gainera Gipuzkoan kokatutako hurbileko bigarren mehatzulo batetan (Tolarea 2) beste bost *M. bechsteinii* identifikatu zituen. GALÁNEK (1970) bildutako materiala aztertuz, Aranzadi Zientzi Elkarteko Bioespeleología Saileko bilduman gordeta zegoena, ikertzaile honen aipuan *Myotis emarginatus*kiko (Geoffroy, 1806) identifikazio-akatsa gertatu zela ebatzi zen (ALCALDE & GOSÁ, 1998; AIHARTZA, 2000; 2001), egile harren lokalitate bereko ondorengo erreferentziak eta alboko mehazulokoak (GALÁN, 1997) ere ezetsiz.

Beranduago, AIHARTZA *et al.* (1997) *M. bechsteinii*ren adin evezaguneko hezur-aztarnen berri eman zuten (bi kranio eta barail bat), 91/03/30an Barakaldoko Esparta talde espeleo-

* UPV/EHU. Zoología eta Animali Zelulen Dinamika Saila.
644 p.k • 48080 Bilbo.

logikoak Jorrios mendizerrako Torca de la Mazuelan (Bizkaia, VN79, 610 m-tako altitdea) aurkitutakoak, eta talde horren bilduman GEE24, GEE25 eta GEE26 kodea dutenak. 90. hamarkadaren lehen erdian Nafarroan eginko azterketa sakonak ez zuen espeziearen aipu berririk eman (ALCALDE, 1995; ALCALDE & ESCALA, 1999), alabaina beranduago edoskiān zegoan emea harrapatu zen sarez Orgiko basoan (Nafarroa, XN05, 513 m), lehenbizikoz *M. bechsteinii*en egungo presentzia eta kumaketa egiaztatuz Euskal Herrian (ALCALDE & GOSÁ, 1998). Aldi berean, beste ale bat harrapatu zen Arabako mugatik metro batzutara Toloño-Kantabriako mendizerran (Abalos, Errioxa, WN21, 1180 m) (AGIRRE-MENDI, 1998).

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan 1994 eta 2000 urteen bitartean teknika desberdinak era-biliz, hala nola, babeslekuen behaketa zuzena, sare kiropterologikoak, harpa-sareak eta ultrasoinuen detektoreak, eginko ikerketa sakon batetan espeziearen bi lokalitate berri topatu ziren: 97/07/03an Ebro ibaiko makaldi (*Populus* spp.) batetan ar gazte bat harrapatu genuen sarez Labastidan (WN11, 440 m); 98/09/05ean Toloño-Kantabriako mendizerrako harpe batetara gauzez sartu zen beste banako bat behatu genuen hurbileti (WN31, 800 m), gerora harrapatzerik izan ez genuena.

M. bechsteinii espezie arraroa da bere banaketa-eremu osoan eta populazio lokalak ditu (SCHLAPP, 1999). Aldiz, Bohemian erlatiboki ugaria da 490-900 m arteko zonalde sub-montanoetan, basosail txikiz osotutako haran flubial irekietan eta jatorrizko baso mixtoaren hurbilean (CERVENY & BURGER, 1989). Gaur egungo datu eskasia espeziearen gain-behera orokorrari atxeki zaio kontinentean (STEBBINGS & GRIFFITH, 1986). Suitzan esaterako, kobetan aztarna fosil ugari ezagutzen bada ere (AELLEN, 1978; MOREL, 1989; MAGNIN, 1989), oso arraroa da egun eta kumatze-kolonia bakarra ezagutzen da (BLANT, 1995).

Iberiar Penintsulan lokalitate gutxi batzutan behatu da eta horiek oso barreiatuta daude, banaketa zabal baina etena duela konsideratu delarik (FERNÁNDEZ & IBÁÑEZ, 1989; IBÁÑEZ, 1998). Euskal Herriko herrialde auzoei dagokiola Kantabriako Elkarte Autonomoko ekialdeko aurkikuntzak azpimarra daitezke, denak kobetan bildutako adin ezezaguneko hezur-aztarnak direlarik (TUPINIER, 1975; MEJÍDE-CALVO, 1979). Akitaniako iparrekialdean topatu da batikbat (MASSON, 1984; MASSON & SAGOT, 1985; 1987).

Egungo kokapen eskasiaren eta Pleistozenotik Neolitikorainoko erregistro fosilean behututako maiztasun altuaren arteko aldea nabarmena da (AELLEN, 1978; MOREL, 1989; MAGNIN, 1989; SEVILLA, 1989; 1991), *M. bechsteinii* atzerantz egiten ari dela ondoriozta daitzekeelarik, bai aldaketa klimatikoengatik, bai deforestazioagatik edo bien eraginagatik (CORBET & HARRIS, 1991; ARLETTAZ *et al.*, 1997; IBÁÑEZ, 1998). Hain zuzen ere, espezieak habitat beharrizan zorrotzak ditu, arbola zahar ugariko eta batikbat haranondotan dauden hostogalkorren baso helduak hautesten baititu (KOWALSKI & RUPRECHT, 1981; STEBBINGS & GRIFFITH, 1986; CERVENY & BURGER, 1989; GREENAWAY & HUTSON, 1990; BENZAL *et al.*, 1991; CORBET & HARRIS, 1991; ARLETTAZ *et al.*, 1997; IBÁÑEZ, 1998; SCHLAPP, 1999). ALCALDE & GOSÁ (1998) Orgiko basoan, hots, Nafarroako baso zaharrenetako batetan, eginko harrapaketak, beharrizan horiek berresten ditu. Kontinenteko zonalde anitzetan habitat hori mendialdearekin lotuta badago ere, *M. bechsteini*k ez du altitude garaiekiko preferentziarik, ugaria-go delarik 900 m-tatik beherako eremu submontanoetan, noiz edo noiz 1800 m-tara hel-

badaiteke ere (CERVENY & BURGER, 1989; IBÁÑEZ, 1998; SCHLAPP, 1999). Hortaz, izaera termofiloko espezie forestaltzat jo da (KOWALSKI & RUPRECHT, 1981).

Textuinguru horretan, ez lan honetan aurkitutako Los Jorrios mendizerrako hezur-aztarnek, eta ez beste autore batzuk Kantabriako Elkarte Autonomoko hurbileko lekutan topatutakoek ere (TUPINIER, 1975; MEJIDE-CALVO, 1979), ez dute gaur egungo bere presentzia ziurtatzen. Animalia bizien behaketa-kopuru txikiak, gainera, zera iradoki dezake: Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako zati gehienek espeziearen populazio egonkorra eduki-tzeeko baldintzarik ez dute, -edo ez dute historia hurbilean eduki. Lurraldearen eremu zabalak biziki deforestatu dira azken bi mendeetan (RUIZ-URRESTARAZU, 1992; SARASUA, 1997), eta gaur egun dauden hostogalkorren basoak oso gazte dira edo sail barreiatutan daude, gainera mendialdera lotutakoak direlarik sarritan, eta ondorioz baldintza gogorregikoak dirateke espeziearentzat. Animalia biziak topatu ditugun bi lokalitateak Toloño-Kantabriako mendizerra eta inguruetaen daude, AGIRRE-MENDIREN (1998) aipu bakarra bezala, zonalde horretan populazio egoilar bat bizi daitekeela iradokiz. Berorri Nafarroan ALCALDE & Gosák (1998) aurkitutako gehitu behar genioke. Halaber, Toloño-Kantabriako mendizerrak Arabako hostogalkorren basosail handi eta dibertsoenetako bat baitaratzen duela azpimarratu behar da (ASEGINOLAZA *et al.*, 1992).

ESKERTZA

Lan honetan nolabait lagundi duten guztiak eskertu nahi ditugu: batikbat E. Bernedo, E. Imaz, M.J. Totorika eta U. Goiti mendiko lanagatik eta H. Baagoe, A. Elosegi eta J. Juste hasierako zirriborro bati eginiko ekarpengenatik. Era berean, azpiegituren erosketa eta lanaren egintza bera finantzatu duten erakundeak eskertu nahi ditugu: UPV/EHUko Ikerketa Errektoreordetza (UPV 154.310-EA051/96 projektua), Gorbeiako eta Aralarreko Parke Naturalak.

BIBLIOGRAFIA

- AELLEN, V. 1978. Les chauves-souris du canton de Neuchâtel, Suisse (Mammalia, Chiroptera). *Bulletin de la Société Neuchâteloise des Sciences Naturelles* 101: 5-25.
- AGIRRE-MENDI, P.T. 1998. Contribución al conocimiento de la corología de los murciélagos (Chiroptera, Mammalia) en la Comunidad Autónoma del País Vasco (Sierra de Cantabria). *Zubia* 16: 61-90.
- AIHARTZA, J.R.; E. IMAZ & M.J. TOTORIKA. 1997. Distribution of bats in Biscay (Basque country, Northern Iberian Peninsula). *Myotis* 35: 77-88.
- AIHARTZA, J.R. 2000. Una corrección sobre *M. bechsteinii* en Navarra. *Barbastella* 1: 12.
- AIHARTZA, J.R. 2001. *Quirópteros de Araba, Bizkaia, y Gipuzkoa: Distribución, Ecología y Conservación*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea.

- ALCALDE, J.T. 1995. *Distribución y fenología de los quirópteros de Navarra*. Iruñea: Universidad de Navarra.
- ALCALDE, J.T. & A. GOSÁ. 1998. Comprobada la presencia y reproducción del murciélagos de Bechstein (*Myotis bechsteinii*) (Chiroptera: Vespertilionidae) en Navarra. *Munibe, Cienc. nat.* 50: 89-91.
- ALCALDE, J.T. & M.C. ESCALA. 1999. Distribución de los Quirópteros en Navarra, España. *Boletín de la Real Sociedad Española de Historia Natural. Sección Biológica* 95(1-2): 157-171.
- ARLETTAZ, R.; A. LUGON; A. SIERRO & M. DESFAYES. 1997. Les chauves-souris du Valais (Suisse): statut, zoogéographie et écologie. *Le Rhinolophe* 12: 1-59.
- ASEGINOLAZA, C.; D. GÓMEZ; X. LIZAUR; G. MONTSERRAT; G. MORANTE; M.R. SALAVERRÍA; P.M. URIBE-ETXEBARRIA & J.A. ALEJANDRE. 1992. *Euskal Autonomi Elkarteko Landarediaren Mapa*. Gasteiz, Eusko Jaurlaritza. Ekonomia, Plangintza eta Ingurugiro Saila.
- BENZAL, J.; O. DE PAZ & J. GIBERT. 1991. Los murciélagos de la Península Ibérica y Baleares. Patrones biogeográficos de su distribución. In: Benzal, J. & O. de Paz, *Los murciélagos de España y Portugal*. Madrid: ICONA. pp. 39-92.
- BLANT, J.-D. 1995. *Les chauves-souris du Canton de Neuchâtel*. Editions de la Girafe.
- CERVENY, J. & P. BÜRGER. 1989. Bechstein's Bat, *Myotis bechsteinii* (Kuhl, 1818), in the Sumava Region. In: Hanak, V. et al., *European Bat Research 1987*, Praha: Charles University Press. pp. 591-598.
- CORBET, G.B. & S. HARRIS. 1991. Bats: Order Chiroptera. In: Corbet, G.B. & S. Harris, *The Handbook of British Mammals*, Oxford: Blackwell Scientific Publications. pp. 81-145.
- FERNÁNDEZ, R. & C. IBÁÑEZ. 1989. Patterns of distribution of bats in the Iberian Peninsula. In: Hanak V. et al., *European Bat Research 1987*, Praga: Charles University Press. pp. 357-361.
- GALÁN, C. 1970. Aportación al conocimiento de los Quirópteros Cavernícolas del País Vasco. *Munibe* 22 (1-2): 61-66.
- GALÁN, C. 1997. Fauna de Quirópteros del País Vasco. *Munibe, Cienc. nat.* 49: 77-100.
- GREENAWAY, F. & A.M. HUTSON. 1990. *A field guide to British bats*. Uxbridge: Bruce Coleman Books.
- IBÁÑEZ, C. 1998. Los Quirópteros. In: Blanco, J.C., *Mamíferos de España*, Barcelona: Editorial Planeta. pp. 114-218.
- KOWALSKI, K. & A.L. RUPRECHT. 1981. Order: Bats-Chiroptera. In: Pucek, Z., *Keys to Vertebrate of Poland Mammals*, Varsovia: PWN-Polish Scientific Publishers. pp. 101-154.
- LANZA, B. & P.L. FINOTELLO. 1985. Biogeografia dei Chiropteri italiani. *Bulletino Museo Regionale Scienze Naturale Torino* 3 (2): 389-420.
- MAGNIN, B. 1989. Observations sur les restes de chiroptères du réseau des Morteyts, dans le canton de Fribourg, Suisse (Mammalia, Chiroptera). *Bulletin Société Française Sciences Naturelles* 78: 66-80.
- MASSON, D. 1984. Contribution à l'étude des chauves-souris du Sud-Ouest de la France: I. Liste commentée des chiroptères d'Aquitaine et du Lot. *Lutreola* 1: 1-16.
- MASSON, D. & F. SAGOT. 1985. Groupe de travail Chiropteres: Synthèse des observations réalisées entre Mars 1984 et Février 1985. *Lutreola* 2: 13-36.
- MASSON, D. & F. SAGOT. 1987. Synthèse des observations sur les Chiroptères du Sud-Ouest de la France: Mars 1985 à Février 1986. *Lutreola* 3: 25-41.

- MEIJIDE-CALVO, M. 1979. Catálogo de los quirópteros de la Provincia de Santander. *Cuadernos de Espeleología* 9-10: 101-112.
- MOREL, P. 1989. Ossements de chauves-souris et climatologie: collecte systématique de squelettes de chiroptères dans les systèmes karstiques des Préalps et Alpes suisses-periers résultats. *Stalactite* 39: 58-72.
- RUIZ-URRESTARAZU, M.M. 1992. *Análisis y diagnóstico de los sistemas forestales de la CAPV*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- SARASUA, A. 1997. Adan de Yarza markesak laga zigun ondarea: pinu-landaketa eta Euskal Herriko hegazti-komunitateak. *Elhuyar Zientzia eta Teknika* 117: 30-43.
- SCHLAPP, G. 1999. *Myotis bechsteinii* (Kuhl, 1817). In: Mitchell-Jones A.J. et al., *The Atlas of European Mammals*, London: T & AD Poyser. pp. 100-101.
- SEVILLA, P. 1989. Quaternary fauna of bats in Spain: Paleoenecologic and biogeographic interest. In: Hanak, V. et al., *European Bat Research* 1987, Praha: Charles University Press. pp. 349-355.
- SEVILLA, P. 1991. Murciélagos fósiles de España. In: Benzal, J. & O. de Paz, *Los murciélagos de España y Portugal*, Madrid: ICONA. pp. 21-36.
- STEBBINGS, R.E. & F. GRIFFITH. 1986. *Distribution and status of Bats in Europe*. Huntingdon:ITE.
- TUPINIER, Y. 1975. *Chiroptères d'Espagne. Sistematico. Biogeographie*. Lyon: Univ. Cgl. Bernard Lyon.



- Jasotze-data/Date of reception: 17/05/2002
- Onarpen-data/Date of acceptance: 04/08/2002